

Informazio

Agerkaria Boletín

informativo

BIZKAIA
JAURERRIKO
ABOKATUEN
BAZKUN
OHORETSUA
2010eko
MARTXOA



ILUSTRE
COLEGIO DE
ABOGADOS
DEL SEÑORIO
DE VIZCAYA
MARZO
2010

BULEGO JUDIZIAL BERRIA

LA NUEVA OFICINA JUDICIAL



Nº
188
ZK.



**Los jueces confían
en El Derecho
desde hace 10 años
¿Quiere recurrir
su decisión?**

**y ahora con...
6° Sentido**

El Derecho **Internet**

Mejor, recurra al origen de su confianza

Desde hace más de 10 años, los jueces confían en las bases de datos de El Derecho en su día a día. Durante estos años, El Derecho ha innovado para dotarles de la mejor herramienta, contribuyendo a aumentar su eficacia. Le invitamos ahora a que aumente la suya. **Descubra por qué los jueces confían en El Derecho.**

El Derecho, innovando juntos



Azkenaldian horrenbeste aldiz aipatzen ari garen bulego judizialaren eraldaketak epaileen jarduera-esparrua jurisdikzio hutseko eginkizunera mugatzearen aldeko apustua egiten du, modu horretan, gai bakoitzaren eduki juridikoa ebazteari denbora gehiago eta arreta gehiago eskainiz, hurrekotasun-printzipioaren garapenaren bidez, frogak gauzatzeko ekitaldietara joanda eta alderdiak eta lekukoak zuzenean ezagututa lortutako hautemate juridikoan oinarritzeko eta gatazkari buruzko erabakia hartzen bete-betean aritze-ko, gaiaren edukia aztertuz. Aldi berean, idazkaritza judizialaren esku uzten dira izapidetzako gai prozesalak, hala nola, jakinarazpenen kontrola, errekurtsoen ebazpena, etab.

Sistema berria sortu nahi da koordinazioa eta eginkizunen zatiketa oinarri hartuta, eta horretan, teoriarik, kudeaketa, etekin eta kalitatearen inguruko sistemak eta kontrol-erremintak sortuko dira.

Aldi berean, gure lurralde-esparruko epaitegi batean justizia-administrazioaren zerbitzuaren kalitatea hobetu nahi da, lan arloko jurisdikzioan bitartekaritza-zerbitzuaren plan pilotua abian jarrita, hurrengo gaiak jorratzen direnean, besteak beste: oinarritzeko eskubideen aitortpena, lan-baldintzen funtsezko aldaketa, oporrak, edo zehapenak. Prozesu hori –alderdiak eskatuta gauzatzen da gero garatzeko lan arloko epailearen erabakiaren menpe dago; izan ere, bidezkoa ikusten badu eta ziodun autoaren bidez bitartekaritza-prozesua abiatzea adostu dezake alderdiak Lan Harremanen Kontseilura deituta. Organo horren aurrean, alderdiek akordio osoa lortu ahal izango dute, eta ondoren akordio hori auto judizialera bilduko da, eta ikustaldia etengo da akordioa erabatekoa bada, edo ikustaldia akordiorik ez duten arloetara mugatuko da.

Bulego judizialari dagokionez egindako eraldaketak eta horri lotutako eraldaketa prozesalek berrikuntzak dituzte, hala nola zigor-apelazioen kasuan auzitegian aukera dago zigor arloko epailearen aurreko ikustaldian gauzatzeko frogen grabazioa erreproduzitzeko edo ikustaldia zibiletan idazkari judizialaren ordean ikustaldien grabazioa jartzeko. Berrikuntza horiek direla bide, grabazio-bitartekoei garrantzi berezia ematen zaie eta nahitaez planteatu behar dugu zein izan behar den jardunik eraginkorrena eskura dauden baliabide teknikoaren okerreko funtzionamenduak gure bezeroen interesei kalte egin ahal dienez.

La reforma de la oficina Judicial tan comentada en los tiempos que nos acogen apuesta por centrar el foco de actuación de los jueces en la función de mera jurisdicción conservando, así, más tiempo y posibilidad de atención a la resolución del fondo jurídico de cada asunto, mediante el desarrollo del principio de inmediación, para centrarse en la percepción jurídica adquirida mediante la asistencia a la celebración de las pruebas y el conocimiento directo de las partes y testigos y para poder dedicarse de lleno a la toma de la decisión sobre el conflicto estudiando el fondo del asunto al tiempo que se deja en manos de la secretaría judicial las cuestiones procesales de trámite como son el control de notificaciones, la resolución de recursos etc

Se trata de la creación de un nuevo sistema basado en la coordinación y división de funciones en el que, en teoría, se crearán sistemas y herramientas de control de gestión, rendimiento y calidad.

Al mismo tiempo, en uno de los Juzgados de nuestro ámbito territorial se pretende avanzar en la mejora de calidad del servicio de administración de Justicia poniendo en marcha un plan piloto de servicio de mediación en la jurisdicción social, para asuntos que versen sobre materias relativas a reconocimiento de derechos fundamentales, modificación de las condiciones sustanciales de trabajo, vacaciones, o sanciones, entre otros, en un proceso que -si bien se ejercita a instancia de parte, para su posterior desarrollo- queda sometido a la decisión del Juez de lo social quien, si lo estima procedente y en auto motivado acuerda iniciar el proceso de mediación citando a las partes ante el Consejo de Relaciones laborales. Ante este órgano las partes podrán alcanzar un acuerdo total que se recogerá posteriormente en un auto judicial y que suspenderá la vista si el acuerdo es pleno o ceñirá la celebración de la misma sólo a los extremos sobre los que no se haya alcanzado acuerdo.

La reforma operada sobre la oficina judicial y las reformas procesales que lleva aquella aparejadas, implican novedades como la posibilidad en las apelaciones penales de reproducir en la vista pública ante la Audiencia, la grabación de las pruebas practicadas en la vista ante el Juez Penal o la sustitución de la presencia del Secretario Judicial en las vistas civiles por grabaciones de las vistas. Estas novedades dotan de especial importancia a los medios de grabación y nos hacen plantearnos necesariamente cuál debe ser la actuación más eficaz en caso de que un funcionamiento erróneo de los medios técnicos disponibles pueda perjudicar los intereses de nuestros clientes



**BIZKAIA
JAURERRIKO
ABOKATUEN
BAZKUN
OHORETSUA**

**ILUSTRE
COLEGIO DE
ABOGADOS
DEL SEÑORIO
DE VIZCAYA**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Colaboradores / Laguntzaileak

César Gallastegi Aranzabal
Nahia Llona Fernández
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

Asegura sus sueños

25
años



Ser abogada

20
años



Viaje fin de curso

15
años



Clases de inglés

10
años



Ordenador

5
años



Bicicleta



Haz mutualista a los más jóvenes de la familia.

Abre un plan **JUNIOR** y conseguirás hacer realidad sus sueños

- Rentabiliza al máximo sus ahorros
- Un Plan a medida de los más jóvenes
- Ahorro y protección en un sólo Plan
- Con la solvencia de la Mutualidad


Infórmate en el **902 25 50 50** o entra en www.mutualidadabogacia.com

BIZKAIA
JAURERRIKO
ABOKATUEN
BAZKUN
OHORETSUA
2010eko
MARTXOA

ILUSTRE
COLEGIO DE
ABOGADOS
DEL SEÑORIO
DE VIZCAYA
MARZO
2010



Nº
188
ZK.



6



8




14



40



24



37

NOTICIAS

6 **BERRIAK**

CON TOGA Y HUMOR

9 **TOGAREKIN ETA UMOREZ**

COMISIONES

II Curso Superior de
Derecho Consursal

10 **BATZORDEAK**

*Konkurtso zuzen-bideari buruzko goi mailako
II. Ikastaroa*

INFORMACIÓN

La hipoteca inversa,
o cómo mejorar la jubilación

12 **INFORMAZIOA**
*Alderantzizko hipoteka,
edo erretiroa nola hobetu*

Consecuencias de la
Defectuosa Grabación
de los Juicios Civiles

16 *Epaiketa zibilen
grabazio akastunaren
ondorioak*

JORNADAS

La mediación en
la jurisdicción social

24 **JARDUNALDIAK**
*Lan arloko jurisdikzioko
bitartekaritza*

BIBLIOTECA COLEGIAL

30 **BAZKUNEKO LIBURUTEGIA**

NOVEDADES LEGISLATIVAS

32 **LEGEGINTZA BERRITASUNAK**

SUPLEMENTO CULTURAL

34 **KULTUR ERANSKINA**

ABOKATUEN BAZKUNAREN URTEROKO BAZKARIA: MAIATZAK 21 BILBOKO CAMPOS ANTZOKIA

Aurten, Bizkaiko Abokatuena Bazkuneko urteroko bazkaria maiatzaren 21ean, ostirala, egingo da Bilboko Campos Antzokian. Gobernu Batzordearen ustez, Bazkuneko bazkariak bizkaitar abokatuentzat jaieguna izan behar du, lagunen eta kideen arteko topaketa bultzatu behar da eta ordu atsegina batzuk atseden-giroan gozatzeko aukera eskaini behar da. Hori dela eta, kideek haien agenda behar den besteko aurrerapenarekin antolatuta ahalizateko eta egun horretan libre egon ahal izateko, data aurrerapen handiarekin adierazi dizuegu.

PROGRAMA:

13etan: Kide berriak Bazkuneko kide egitea Abokatuena Bazkuneko ekitaldien aretoan. Jarraian: **OMENALDIA 2009AN 25 URTE ABOKATU LANBIDEAN BETE ZITUZTEN KIDEEI.** Kide horiek elkargokide berriak haien babespean hartuko dituzte.

14etan: **APERITIBOA** ekitaldi ofizialetan parte hartzen dutentzat.

14,30ean HARRERA CAMPOS ANTZOKIAN, Bertendona kalean.

15etan BAZKARIA CAMPOS ANTZOKIKO AUDITORIOAN. Azkenburukoetan Kirol Batzordeak antolatutako txapelketetako garaikurrak emango dira:

Futbito: Koordinatzailea: JAVIER CORTAZAR: 94-4050035 16:30etik 19:00etara

Padela: Koordinatzailea: JAVIER IBAÑEZ BIZUETA. Harremanetarako telefono-zenbakia: 94-4216027.

Emakumezkoen padela: Koordinatzailea: CRISTINA GORGOLAS MEDEL. Harremanetarako telefono-zenbakia: 94-4272738.

Kontinentala: Koordinatzailea: JOSUNE LOPEZ EZCURDIA. Harremanetarako telefono-zenbakia: 94-4230513.

Saskibaloia: Koordinatzailea: ADOLFO RON HERRERO. Harremanetarako telefono-zenbakia: 94-4235970.

Musa: Koordinatzailea: JAVIER BOLADO ZARRAGA. Harremanetarako telefono-zenbakia: 94-4356206.

Mahaian kopa bat hartu ondoren, musika-ingurutik hurbil jarritako barran beste kopa bat hartu ahal izango dugu.

Amaitzeko, DJ bat gu dantzari jartzen ahaleginduko da horretarako bereziki prestatutako aretoaren txoko batean.



BANQUETE ANUAL DEL COLEGIO DE ABOGADOS: 21 DE MAYO TEATRO CAMPOS DE BILBAO

Este año el Banquete Anual del Colegio de Abogados de Bizkaia se celebrará el viernes 21 de Mayo en el Teatro Campos de Bilbao. La Junta de Gobierno entiende que la comida colegial debe ser una fiesta de los abogados vizcaínos donde se propicie el encuentro de amigos y compañeros y donde se pueda compartir de manera relajada unas horas de agradable ocio y, por ello, para que los compañeros puedan organizar su agenda con suficiente tiempo y puedan acudir ese día os adelantamos la fecha con bastante antelación.

PROGRAMA:

13 horas: Colegiación de nuevos compañeros en el salón de actos del Colegio de Abogados. A continuación: **HOMENAJE A LOS COMPAÑEROS QUE EN EL 2009 CUMPLIERON 25 AÑOS DE EJERCICIO** que apadrinarán a los nuevos colegiados.

14 horas: **APERTITIVO** para los asistentes a los actos oficiales.

14,30 horas: **RECEPCION EN EL TEATRO CAMPOS** en la calle Bertendona.

15 horas: **BANQUETE EN EL AUDITORIO DEL TEATRO CAMPOS** y, en los postres se realizará la entrega de trofeos de los campeonatos colegiales organizados por la comisión de deportes:

Futbito: Coordina JAVIER CORTAZAR: 94-4050035 de 16:30 - 19:00

Paddle: Coordina JAVIER IBAÑEZ BIZUETA: teléfono de contacto 94-4216027.

Paddle Femenino: Coordina CRISTINA GORGOLAS MEDEL: teléfono de contacto 94-4272738

Continental: Coordina JOSUNE LOPEZ EZCURDIA: teléfono de contacto 94-4230513.

Baloncesto: Coordina ADOLFO RON HERRERO: teléfono de contacto 94-4235970.

Mus: Coordina JAVIER BOLADO ZARRAGA: teléfono de contacto 94-4356206.

Tras la copa en la mesa, podremos tomar otra en la barra dispuesta a al efecto cerca de la zona de música.

Por último, un DJ se encargará de amenizarnos el final de la sobremesa e intentará hacernos bailar en una zona de la Sala especialmente habilitada para ello.

Queremos que la comida sea agradable para todos vosotros y por ello os ofrecemos desde la Junta un año más, la posibilidad de que aquellos de vosotros que tengáis

pensado acudir junto con otros compañeros nos lo comunicáis de antemano para reservar mesas determinadas y así poder sentaros con quienes deseéis.

Las mesas son redondas y de diez comensales. Por tanto, todos aquellos que deseen acudir y comer junto con otros compañeros nos lo tendrán que comunicar previamente para que dispongamos todo al efecto.

Tal como hicimos el año pasado, queremos simplificar el pago y la recogida de las tarjetas de la comida pues sabemos que para muchos de vosotros supone una incomodidad añadida y no queremos que esa circunstancia sea un obstáculo para acudir a la comida.

Este año bastará una llamada al propio colegio -1ª planta 944356200- dando el nombre y número de colegiado para que le demos de alta en esta comida. El precio de cada tarjeta será de 46 €uros y el Colegio subvencionará el resto del precio hasta completar el importe del cubierto.

Para aquellos que decidan utilizar esta vía que ponemos a vuestra disposición, el importe que cada asistente debe abonar por su asistencia al Banquete, se le domiciliará en el número de cuenta que figura en el Colegio y donde se le descuentan las cuotas colegiales.

Os animamos a todos a acudir a vuestra anual fiesta colegial el próximo viernes 21 de Mayo de 2009 en el Teatro Campos, a partir de las 14,30 horas.

Un afectuoso saludo

JUNTA DE GOBIERNO DEL COLEGIO
DE ABOGADOS DE BIZKAIA

Bazkaria guztiontzat atsegina izatea nahi dugu, eta horregatik, Batzordetik, aurten ere, aukera eskaintzen dizuegu beste elkargokide batzuekin joatea pentsatuta duzenoi alde aurretik jakinarazteko guk mahai jakin batzuk erreserbatu ahal izateko eta horrela zuok nahi duzenekin eseri ahal izateko.

Mahaiak biribilak dira eta mahai bakoitzean hamar sartzen dira. Beraz, beste kide batzuen ondoan eseri nahi dutenek guri jakinarazi behar digute guk guztia prestatu ahal izateko.

Iaz egin genuen moduan, ordainketa eta bazkariko txartelen bilketa sinplifikatu nahi dugu, zuetako askorentzat traba dela baitakigu eta hori bazkarira ez joateko arrazoia ez izatea nahi baitugu.

Aurten nahikoa izango da Bazkunera dei bat egitea -1. solairua, 944356200- eta elkargokidearen izena eta zenbakia adieraztea bazkarian altan emateko. Txartel bakoitzaren prezioa 46 euro izango da eta Bazkunak gainerakoa diruz lagunduko du, bazkariaren prezio osoa ordaindu arte.

Zuen eskura jartzen dugun bide hau erabili nahi dutenei bazkaria joateko ordaindu behar den zenbatekoa Bazkunearan kuotak ordaintzeko daukagun banku-zenbakian helbideratuko zaio.

Guztioi 2010eko maiatzaren 21ean, ostiralean, Campos Antzokian, 14,30etik aurrera, Bazkunaren urteroko jaira joateko gonbita luzatzen dizuegu.

Agur bero bat

BIZKAIKO ABOGATUEN BAZKUNeko GOBERNU BATZORDEA

COMIDA MARGEN IZQUIERDA

El pasado 26 de febrero de 2010 los compañeros de la margen izquierda y zona minera celebraron la jornada de hermandad anual en el Palacio de Oriol, ubicado en el Barrio de Peñota que sirve de frontera de las nobles Villas de Santruzi y Portugalete.



Acudieron 108 compañeros, contando con la asistencia de sus representantes en la Junta de nuestro Colegio, Dña. Tatiana González y Dña. Genma Escapa, del Secretario del colegio D. Javier Bolado, de nuestro gerente: D. Alberto Seco y de nuestra entrañable empleada del Colegio Dña. Magdalena Roca, además acudieron al evento algunos jueces y fiscales que junto con algunos de los procuradores provocó que la jornada contase con la presencia de algún representante de todos los operadores jurídicos que desarrollan su labor profesional en el Partido Judicial de Barakaldo.

EZKERRALDEKO BAZKARIA

2010eko otsailaren 26an, ezkerraldeko eta meatze-inguruko kideek urteroko anaitasun-jardunaldia egin zuten Oriol jauregian, Peñota auzoan, Santurtzi eta Portugalete hirien arteko mugan.

106 kide bertaratu ziren. Tartean, gure Bazkuneko Batzordeko ordezkariak, Tatiana González and. eta

Genma Escapa and., Bazkuneko idazkaria, Javier Bolado jn., gure kudeatzailea, Alberto Seco jn., eta Bazkuneko langile kutuna, Magdalena Roca and., ere joan ziren. Horrez gain, ekitaldian epaile, fiskal eta prokuradore batzuk egon zirenez, Barakaldoko barruti judizialean lanbide-eginkizunak gauzatzen dituzten eragile juridiko guztien ordezkariaren bat egon zen.

AFARI-SOLASALDIA JUSTIZIA SAILBURUORDEAREKIN

Joan den otsailaren 25ean, Abokatu Gazteen Taldeak antolatuta, afori-solasaldi bat egin zen Jose Manuel Fínez Justizia sailburuorde eta Bilboko Lehen Auzialdiko 13. zk.ko Epaitegiko magistratuarekin (lan-utzialdian dago), "Justizia Administrazioa eta Abokatutza" gaiari buruz eztabaidatzeko.

Topaketa horretan, sailburuordeak bulego judizialaren eredu berria ezartzeko aurreikuspenak azaldu zituen. Bulego berrian baliabide tekniko eta gizatiarrak berrantolatuko dira, justizia modernizatu eta bizkortzeko; eta hori gauzatzeko epeak ere berriz ezarriko dira. Administrazio elektronikoa abian jartzea tresna oso baliagarria izango da, "justiziabat" plataforma digitalaren bidez. Plataforma horrek jakinarazpen elektronikoak eta dokumentazioa sinadura digitalarekin aurkeztea bermatuko du.

Justizia Saitetik Ofizioko Txandaren sisteman sartu nahi diren aldaketen inguruan eztabaidatu zen, hiru hilabetearen eskaera errepikatuz; eta abokatu guztiek doako osasun-laguntza izatea eskatu zen Osakidetza sistema publikoaren barruan.

Lerro hauen bidez sailburuordeari eskerrak eman nahi dizkiogu gure gonbitari baietz esateagatik, egindako galdera guztiei oso argi erantzuteagatik eta abokatuok helarazi genizkion kezka guztiak entzuteagatik.



Jose Manuel Fínez

CENA-COLOQUIO CON EL VICE-CONSEJERO DE JUSTICIA

El pasado día 25 de febrero, organizado por la Agrupación de Jóvenes Abogados, tuvo lugar cena-coloquio con el Viceconsejero de Justicia y Magistrado en excedencia del Juzgado de Primera Instancia nº13 de Bilbao, Jose Manuel Fínez, para debatir sobre "Administración de Justicia y Abogacía".

Durante el encuentro el Viceconsejero explicó las previsiones para la implantación del nuevo modelo de oficina judicial, que supone una reorganización de medios técnicos y humanos, al servicio de la modernización y agilidad de la Justicia; así como de los plazos para su consecución. Un instrumento muy valioso será la puesta en marcha de la Administración electrónica que, a través de la plataforma digital "justiziabat", garantizará las notificaciones electrónicas y presentación de documentación con firma digital.

Se debatió sobre cambios que desde la Consejería de Justicia se quieren introducir en el sistema de Turno de Oficio, reiterando nuestra solicitud de liquidación trimestral; y abogando por la cobertura de la asistencia sanitaria gratuita para todos los abogados y abogadas dentro del sistema público de Osakidetza.

Desde estas líneas queremos agradecer al Viceconsejero su formidable disposición en aceptar nuestra invitación y claridad al responder a todas las cuestiones que le planteamos; así como la escucha de las preocupaciones de la abogacía que le pudimos transmitir.

CARMELO CAMACHOREN ERAKUSKETA

"Lo que sé de mí... Tan sólo"

Joan den martxoaren 11n, Bizkaia Jaurerriko Abokatuena Bazkun Ohoretsuko Eduardo Escribano Aretoan, "Lo que sé de míTan Solo" erakusketa inauguratu zen. 2010eko apirilaren 9ra arte ikusi ahal izango da.



EXPOSICIÓN DE CARMELO CAMACHO

"Lo que sé de mí... Tan sólo"

El pasado día 11 de Marzo se inauguró en la Sala Eduardo Escribano del Ilustre Colegio de Abogados de Vizcaya la exposición "Lo que sé de míTan Solo" que permanecerá hasta el 9 de abril de 2010





LA VIDA ANTE LOS TRIBUNALES

Teresa Uriarte. Abogada y Periodista

“Sería necesario que el abogado ejerciera de juez dos meses al año, y que el juez hiciera de abogado un par de meses también cada año. Aprenderían así a comprender y a compadecerse, y se estimarían más mutuamente”.

P. Calamandrei (1889-1956) “Elogio de los jueces”

Abogado, al ver llegar a sus clientes; una familia completa en la que el hijo había lesionado al padre: “¿Ya están todos?, pues les ruego que no empiecen a pegarse”

Audiencia de Bilbao, diciembre 1985

Fotógrafo de boda, testigo en un juicio, respondiendo a la pregunta del fiscal: “¿Presenció usted la pelea entre el procesado y el denunciante?”

-“No lo sé. En aquel restaurante había 6 o 7 bodas a la vez. Vi varias peleas y no sé a la de qué boda se refiere usted”

Audiencia de Bilbao, diciembre 1985

Argumento de un abogado defensor para convencer a la Sala de que sus clientes se entregaron voluntariamente a la Policía: “Porque puestos a correr, a éstos no los coge nadie”

Audiencia de Bilbao, abril 1986

Un forense informa en un juicio en la Magistratura de Trabajo sobre el estado físico de una mujer de la limpieza y dice que padece una grave dolencia en la columna vertebral, se le hinchan los tobillos, sufre de las articulaciones...y está incapacitada absolutamente para trabajar.

El magistrado insiste: “¿Pero está usted seguro de que no puede realizar ningún tipo de trabajo?”

Forense: “Pues como no le nombren ministro...”

Magistratura de Trabajo de Bilbao, octubre 1988

Fiscal a una acusada: “¿Es usted la autora del anuncio: “Masaje, sauna y solárium, visítenos y quedará maravillado”?

Audiencia de Bilbao, octubre 1989

AUZITEGIETAKO GORABEHERAK

“Beharrezkoa izango litzateke abokatua urtean bi hilabetez epaile aritzea, eta epailea urtean bi hilabetez abokatu aritzea. Modu horretan, ulertzen eta errukitzen ikasiko lukete, eta batetik bestea gehiago estimatuko luke”.

P. Calamandrei (1889-1956) “Elogio de los jueces”

Abokatua, bezeroak iristean; familia oso bat da; semeak aitari min eman dio eta lesioak eragin: “Guztiak zaudete?, mesedez, ez hasi elkar joka”

Bilboko Auzitegia, 1985eko abendua

Ezkontzetako argazkilaria, epaiketa bateko lekukoa, fiskalaren galderari erantzunez: “Auzipetuaren eta salatzailearen arteko borroka ikusi zenuen?”

-“Ez dakit. Jatetxean 6 edo 7 ezkontza zeuden aldi berean. Hainbat borroka ikusi nituen eta ez dakit zein ezkontzari buruz ari zaren”

Bilboko Auzitegia, 1985eko abendua

Abokatu defentsariak Salan emandako argudioa bere bezeroak Poliziarengana borondatez joan zirela esateko: “Korrika hasiz gero, inork ez zituen harapatuko”

Bilboko Auzitegia, 1986ko apirila

Forentseak Lan arloko Magistraturako epaiketa batean garbiketako emakumearen egoera fisikoari buruzko informazioa eman du eta bizkarrezurrean min larria duela, orkatilak handitzen zaizkiola, artikulazioetako mina duela... eta lan egiteko ezintasuna duela esan du.

Magistratuak galdetu du: “Baina ziur zaude ezin duela lanik egin?”

Forentsea: “Ministro-karguan jartzen ez badute...”

Bilboko Lan Magistratura, 1988ko urria

Fiskalak akusatuari: “Iragarki hau zuk idatzi duzu?: “Masajea, sauna eta solariuma, etorri eta txundituta geldituko zara”

Bilboko Auzitegia, 1989ko urria

KONKURTSO ZUZEN- BIDEARI BURUZKO GOI MAILAKO II. IKASTAROA

Aitzol Asla. *Director de la E.P.J./ PJEko zuzendaria*

Denbora igaro den arren, Bazkunean iaz egin zen Konkurtso Zuzenbideari buruzko ikastaroa aipatu behar dugu, oso garrantzitsua izan zuelako eta eragin handia izan zuelako.

Orduetik denbora igaro dela esan dugu, baina egiazki, orduetik konturatu gara, konkurtsoaren gaiak, indarreko ingurubar ekonomikoengatik eta gaia berria eta konplexua denez, interes berezia duela eta, horregatik, egokia iruditu zaigu ikastaroa aipatzea behintzat, elkargokideek gogoan izan dezaten irekita gaudela gai horren arloko trebakuntzan aurrera egiten jarraitzeko iradokizun guztien aurrean.

Egia esan, aspalditik, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkunaren asmoa trebakuntzaren arloko erreferentea bihurtzea da, eta mota honetako ikastaroek eginkizun horri ospea ematen diote, batez ere, elkargokideen parte-hartze aktibo eta masiboari esker.

Gure ustez, arlo guztietan kalitatezko prestakuntza eskaintzea Bazkuneko aktiborik handiena da, haserako prestakuntzari zein etengabeko prestakuntzari dagokienez, gure lanbidean biak oso garrantzitsuak baitira.

Era berean, argi dago hizlarien ospe onak, guztiak kasuak kasuko esparru profesionaletan benetako adituak baitziren, ikastaroaren arakastan eragina izan zuela. Nola ez, abokatuak, epaileak, ekonomistak, unibertsitateko irakasleak, etab. izan genituen gure artean. Gure ustez garrantzitsua da arlo horretan inplikaturako profesional desberdinen iritziak ezagutzea, are gehiago jurisprudenzia eta konkurtsoko doktrina sortzen hasi direnean. Sorrera horretan guztiok lagundu behar dugu, eta horretarako, prestakuntza egokia ezinbestekoa da.

Hala ere, atal honetan zuon iritziak eta iradokizunak jaso nahi ditugu etorkizunean hobetzen jarraitzeko eta ziurrenik egin ditugun akatsak berriro ez egiteko. Bide batez, akats horienegatik barkamena eskatzen dizuegu.

Ikastaroa "Pedro Ibarreche" Praktika Juridikorako Eskolak antolatu eta Carlos Ais Conde kideak zuzendu zuen, eta abokatuei eta ikastaroaren edukiarekin lotura zuten goimailako tituludunei bideratuta zegoen. Ikastaro horren bidez kalitatezko prestakuntza eskaini nahi zen konkurtsoaren arloan eta, aldi berean, prestakuntza egokia eman nahi zitzaion Abokatuen Bazkunak Merkataritza arloko Epaitegiei konkurtsoko administratzaileak izendatzeko ematen dizkion zerrendetan egon nahi zutenei.

Hori dela eta, ikastaroa Konkurtso Legearen 27.2 artikularen arabera diseinatu zen, konkurtso-administratzaileak trebatzeari begira.

Zernahi gisaz, ikastaroa interesgarria izan zen konkurtsoaren arloan prestakuntza izan nahi zuten abokatu guztient-

II CURSO SUPERIOR DE DERECHO CONCURSAL

Aunque ha pasado ya algún tiempo, no queremos dejar de destacar, por la importancia y la repercusión que ha tenido, el Curso de Derecho Concursal que se llevó a cabo en el Colegio el pasado año.

Decíamos que hace ya algún tiempo que se celebró, pero también es cierto que en ese periodo, nos hemos dado cuenta, que la materia concursal, por las circunstancias económicas reinantes o por lo novedoso y complicado de la misma es de especial interés y por ello, nos ha parecido adecuado reseñar al menos su celebración, con el propósito también de que los compañeros recuerden que seguimos abiertos a todas las sugerencias que quieran hacernos llegar para seguir avanzando en la formación en esta materia.

Lo cierto, es que desde hace tiempo el propósito del Colegio de Abogados del Señorío de Vizcaya es el de convertirse en referente en materia de formación, y la celebración de cursos como estos prestigian esa labor, sobre todo, gracias a la activa y masiva participación de los colegiados.

Creemos, que avanzar en una formación de calidad en todas las materias es el mayor activo del colegio, tanto en la formación inicial como en la continuada, tan mi portante en nuestra profesión.

Es también evidente, que el prestigio de los ponentes, todos ellos verdaderos expertos en la materia, en sus distintos ámbitos profesionales, contribuyo al éxito del curso. Hemos contando, por supuesto con abogados, jueces, economistas, profesores de universidad, etc. Creemos que es importante conocer las opiniones de los distintos profesionales implicados en la materia, más aun cuando la jurisprudencia y doctrina concursal esta aun comenzando a crearse. En esa creación deberemos contribuir todos, y para ello, una adecuada formación es indispensable.

No obstante, en este apartado también, queremos contar con vuestros comentarios y sugerencias para en el futuro poder seguir mejorando y así evitar los errores que sin duda habremos cometido y por los que pedimos disculpas.

El curso, organizado por la Escuela de Practica Jurídica "Pedro Ibarreche" y dirigido por nuestro compañero Carlos Ais Conde, estaba dirigido a abogados y a titulados superiores vinculados con el contenido del curso y pretendía proporcionar una formación de calidad en materia concursal y al mismo tiempo dar la preparación adecuada a quienes desearan formar parte de las listas que el Colegio de Abogados facilita a los Juzgados de lo Mercantil para la designación de administradores concursales.

Por esa razón, el curso se diseñó a los efectos del artículo 27.3 de la Ley Concursal para la formación de los administradores concursales.

No obstante, el curso ha sido de interés también para los numerosos abogados que deseaban adquirir formación en materia concursal debido a que, cada vez con mayor frecuencia nos encontramos en nuestros despachos asuntos que, de una u otra manera, tienen relación con concursos.

El curso se diseñó por medio de módulos diferenciados, con la posibilidad de inscribirse a cada uno de ellos, a todos, o incluso a seminarios o ponencias concretas.

Comenzó el 16 de septiembre con una introducción contable que pretendía abordar los conceptos y bases comunes de la contabilidad y las finanzas así como dar unas nociones básicas para conocer e interpretar información económica y contable suficiente para los abogados que forman parte de la administración concursal.

El segundo módulo se dedicó al análisis y estudio detallado del Concurso de Acreedores. Partiendo de una visión general sobre la estructura y conceptos esenciales del Concurso, se desarrolló el contenido de la Ley Concursal y sus recientes modificaciones, bajo la perspectiva de su aplicación práctica.

La tercera parte se dedicó al análisis en profundidad de algunas de las cuestiones del concurso de acreedores que han provocado mayores divergencias en su interpretación por la doctrina o la jurisprudencia desde la entrada en vigor de la Ley Concursal. Este módulo se diría principalmente a profesionales que contaban ya con una previa experiencia en el ámbito concursal. Con este módulo, se dio por finalizado el curso el 18 de diciembre.

Merece destacarse que el curso, además de ser requisito obligatorio para todos aquellos que por vez primera querían formar parte de las listas que el Colegio remite a los Juzgados de lo Mercantil, era obligatorio también para los que ya ostentaban dicha condición. Decimos que merece destacarse, ya que una formación continua de calidad y exigible es una realidad en nuestra profesión en muchos países de nuestro entorno, y es algo que en el futuro nosotros tendremos que afrontar. Ejemplos como el concursal son importantes para avanzar en este propósito, más aun viendo el entusiasmo con que los compañeros han participado en el curso.

Finalmente, no debemos olvidar agradecer a todos los ponentes su extraordinaria disposición desde el primer momento en que se les invitó a participar; agradecer el esfuerzo del personal de la Escuela de práctica Jurídica y a todos aquellos que de alguna manera han colaborado en el desarrollo del curso.

Queremos también invitar a todos los compañeros que nos hagan llegar sus sugerencias para seguir avanzando en esta materia. A lo largo de este año, llevaremos a cabo al menos dos o tres talleres de formación jurídica relacionados con la materia en los que esperamos contar con vuestra participación. ■

zat; izan ere, gure bulegoetan konkurtsoekin zerikusia duten gaiak gero eta gehiagotan aurkitzen ditugu.

Ikastaroa modulu berezituaren bidez diseinatu zen. Modulu bakoitzean izena emateko aukera zegoen, edo mintegietan edo hitzaldi zehatzetan.

Irailaren 16an hasi zen. Kontabilitateko sarrera egin zen, kontabilitatearen eta finantzen arloko kontzeptuak eta oinarri erkideak jorrazteko eta konkurtso-administrazioa osatzen duten abokatuei ekonomiako eta kontabilitateko informazioa ezagutu eta interpretatzeko oinarritzko adigaiak emateko.

Bigarren moduluan hartzekodunen konkurtsoaren analisia eta azterketa zehatza egin zen. Konkurtsoaren egiturari eta funtsezko kontzeptuei buruzko ikuspegi orokorra abiapuntu hartuta, Konkurtso Legearen edukia eta oraintsu egindako aldaketak garatu ziren, aplikazio praktikoaren ikuspegitik.

Hirugarren zatian, Konkurtso Legea indarrean sartu denetik doktrinaren edo jurisprudentiaren aldetik hartzekodunen konkurtsoari dagokionez desadostasun gehien eragin dituzten gai batzuk sakon aztertu ziren. Modulu hau konkurtsoaren esparruan aurretiatzko esperientzia zuten profesionalei zuzenduta zegoen batez ere. Modulu honekin, ikastaroa abenduaren 18an amaitutzat eman zen.



Aipagarria da ikastaroa Bazkunak Merkataritza arloko Epaitzegei igorritako zerrendak lehenengoz osatu nahi dituztenentzat nahitaezko betekizuna izatez gain, zerrenda horretan aurretik zeudenentzat ere nahitaezkoa zela. Aipatzekoa dela esan dugu, izan ere, kalitatezko etengabeko prestakuntza errealitatea eta eskatzeko modukoa da gure inguruko herrialde askotan, eta etorkizunean guk ere aurre egin beharko diogu horri. Konkurtsoaren arloko adibidea garrantzitsua da asmo horretan aurrera egiteko, are gehiago ikastaroan parte hartu duten kideen gogo handia ikusita.

Amaitzeko, hizlari guztiei parte hartzeko gonbita egin zitzaion lehenengo unetik prest agertzea eskertu behar diegu; Praktika Juridikorako Eskolako langileei eta nola edo hala ikastaroaren garapenean lankidetzan aritu direnei ere eskerrak eman behar dizkiegu.

Elkargokide guztiei arlo horretan aurrera egiten jarraitzeko iradokizunak bidaltzeko eskatzen diegu. Aurten arlo honekin lotutako prestakuntza juridikoko bi edo hiru tailer egingo ditugu gutxienez, eta horietan zuok ere parte hartzea espero dugu. ■

ALDERANTZIZKO HIPOTEKA, EDO ERRETIROA NOLA HOBETU

Ignacio Ucar. Abokatu/Abogado

Erretiroaren adina iristen denean, egoera nahiko paradoxikoa izaten dugu aurrean. Higiezinetan ondare handiaren titularrak izaten gara, baina sarre-rak murrizten direnez ezin izaten diogu ordura arteko bizi mailari eutsi, ez gastu batzuei aurre egin, seme-alabei lagundu, etab.

Europako herrialde askotan kapital higigarria eratzen da etorkizunerako pentsio funtsen eta inbertsio funtsen bidez, baina hemen kasu gehienetan higiezinetan kapitala metatu dugu, ia beti etxebizitzan, eta ahal izan bada, bigarren etxebizitza ere eskuratu dugu. Modu horretan, une jakin batean aberatsagoak edo txiroagoak gara ondareari dagokionez, baina txiroak gara likidezari begira. Horrekin batera, munduko bizi-itzaropen handia dugu eta pentsio nahiko txikiak, eta horren eraginez, askotan konpondu beharreko egoera edo, behintzat, hobetu beharrekoa izaten dugu aurrean.

Alderantzizko hipoteka konponbide interesgarria da kasu gehienetan, horri esker sarrera gehigarriak lor ditzakegulako gure jabetzapeko etxebizitzatik edo beste higiezin batetik errenta bat lortuta, horiek saldu behar izan gabe.

Berre errealaren modalitate berria da, eta gure antolamenduan arauketa zehatza du, hots, abenduaren 7ko 41/2007 Legea, Hipoteka Merkatua eta beste arau batzuk Arautzen dituen martxoaren 25eko 2/1981 Legea eraldatu zuena. Lehen xedapen gehigarrian alderantzizko hipotekari buruzko arauketa sartu zuen, formula horren erabilera bultzatzeko asmoz eta abantaila fiskalak emanez.

Aipatu lege-arauketan erakunde hau erraz definitu da, hurrengo esanez:

“Alderantzizko hipoteka da eskatzailearen ohiko etxebizitza den ondasun higiezin baten gaineko hipoteka-

LA HIPOTECA INVERSA, O CÓMO MEJORAR LA JUBILACIÓN

Cuando llega la edad de jubilación nos solemos encontrar con una situación bastante paradójica; somos titulares de un patrimonio ciertamente importante en inmueble/s, pero la reducción de ingresos nos deja sin liquidez suficiente para mantener el nivel de vida que hemos tenido, hacer frente a ciertos gastos, ayudar, en su caso, a los hijos,..., etc.

Mientras en otros países de Europa es muy frecuente que se haya ido constituyendo un capital mobiliario para el futuro vía planes de pensiones y fondos de inversión, aquí nos hemos dedicado en la mayoría de los casos a constituir un capital en inmuebles, casi siempre la vivienda, y si se ha podido, una segunda vivienda. De esa forma, llegado un momento, somos más o menos ricos en patrimonio, pero pobres en liquidez. Unido esto a que tenemos una de las esperanzas de vida más altas del mundo y unas pensiones bastante modestas, nos encontramos en muchas ocasiones ante una situación a solucionar, o al menos, a mejorar.

La hipoteca inversa se presenta como una muy interesante solución en la mayoría de estos casos, pues permite disponer de unos ingresos adicionales mediante la obtención de una renta de la vivienda u otro inmueble del que seamos propietarios, sin necesidad de deshacerse de ellos.

Se trata de una nueva modalidad de garantía real que cuenta ya con una regulación específica en nuestro ordenamiento, en concreto en la Ley 41/2007, de 7 de diciembre, que modificó la Ley 2/1981, de 25 de marzo, de Regulación del Mercado Hipotecario y otras normas, y en su Disposición Adicional Primera introdujo la regulación relativa a la hipoteca inversa, tratando de potenciar la utilización de esta fórmula y dotándola de ventajas fiscales.

La citada regulación legal nos define esta figura de forma sencilla, diciendo:

“Se entenderá por hipoteca inversa el préstamo o crédito garantizado mediante hipoteca sobre un bien inmueble que constituya la vivienda habitual del solicitante y siempre que cumplan los siguientes requisitos:

a) que el solicitante y los beneficiarios que este pueda designar sean personas de edad igual o superior a los 65 años o afectadas de dependencia severa o gran dependencia,

b) que el deudor disponga del importe del préstamo o crédito mediante disposiciones periódicas o únicas,

c) que la deuda sólo sea exigible por el acreedor y la garantía ejecutable cuando fallezca el prestatario o, si así se estipula en el contrato, cuando fallezca el último de los beneficiarios,

d) que la vivienda hipotecada haya sido tasada y asegurada contra daños de acuerdo con los términos y los requisitos que se establecen en los artículos 7 y 8 de la Ley 2/1981, de 25 de marzo, de Regulación del Mercado Hipotecario”.

Así pues, se puede disponer del importe del préstamo o crédito en forma de renta periódica o de una única vez, pero el solicitante no tendrá que pagar cuotas de amortización, pues la deuda no será exigible sino cuando fallezca la persona solicitante, u otros beneficiarios, si se designaran y así se estipula en el contrato. Ello será así incluso cuando se disponga del importe en una sola vez, sin perjuicio de que hasta el fallecimiento esa cantidad dispuesta devengue intereses, que abonarán los herederos, o la entidad acreedora descontará del valor del inmueble, tras el fallecimiento.

A diferencia de las hipotecas tradicionales, al no tener que hacer frente el propietario a la devolución de ninguna cantidad, no se exige por parte de la entidad acreedora ninguna justificación de solvencia.

El importe de la cantidad a percibir en cualquiera de sus modalidades dependerá del valor del inmueble que actúa como garantía y de la edad y sexo de los solicitantes, por razón de la diferente esperanza de vida.

QUÉ OCURRE AL FALLECIMIENTO DEL DEUDOR HIPOTECARIO

Se refiere a esta cuestión el apartado 5 de la DA Primera de la Ley 41/2007, que establece en su primer párrafo que

“Al fallecimiento del deudor hipotecario sus herederos, si así se estipula en el contrato, al fallecimiento del último de los beneficiarios, podrán cancelar el préstamo, en el plazo estipulado, abonando al acreedor hipotecario la totalidad de los débitos vencidos, con sus

ren bidez bermatutako mailegua edo kreditua, betiere, betekizun hauek betetzen badira:

a) eskatzailea eta berak izendatu ditzakeen onuradunak 65 urtekoak edo zaharragoak izatea edo menpekotasun larria edo oso handia izatea,

b) zordunak maileguaren edo kredituaren zenbatekoa izatea aldizkako xedapenen edo xedapen bakarren bidez,

c) zorra hartzekodunak bakarrik eskatzeko modukoa izatea eta bermea gauzatzeko modukoa jabea hiltzen denean edo, kontratuan hala ezartzen bada, azken onuraduna hiltzen denean,

d) hipotekatutako etxebizitza tasatuta eta kalteen aurka aseguratuta egotea Hipoteka Merkatua Arautzeko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 7. eta 8. artikuluetan ezarritako moduan eta betekizunekin”.

Beraz, maileguaren edo kredituaren zenbatekoa aldi-zkako errenta moduan edo aldi bakar batean eskuratu daiteke, baina eskatzaileak ez ditu amortizazio-kuotak ordaindu beharko, zorra eskatzailea edo beste onuradun batzuk (halakoak izendatzen badira eta kontratuan hala ezartzen bada) hiltzen direnean soilik eskatu ahal izango delako. Hori horrela izango da zenbatekoa aldi bakar batean jasotzen den kasuan ere; hala ere, eskatzailea edo beste onuradun batzuk hil arte emandako kopuruak interesak sorraziko ditu eta horiek jaraunleek ordainduko dituzte, edo erakunde hartzekodunak eskatzailea edo beste onuradun batzuk hil ondoren kopuru hori higiezinaren baliotik kenduko du.

Ohiko hipoteketan ez bezala, jabeak kopururik itzuli behar ez duenez, erakunde hartzekodunak ez du kaudi-mena justifikatzea eskatzen.

Modalitate guztietan jaso beharreko kopuruaren zenbatekoa berme moduan jokatzen duen higiezinaren balioaren eta eskatzaileen adinaren eta sexuaren arabera izango da, bizi-itxaropena desberdina izaten delako.

ZER GERTATZEN DA HIPOTEKA ZORDUNA HILTZEAN?

41/2007 Legearen lehen xedapen gehigarriaren 5. idatz-zatian gai horri buruz hitz egiten da. Lehen letrorokadan hurrengo a ezarri da:

“Hipoteka zorduna hiltzean edo, kontratuan hala ezartzen bada, azken onuraduna hiltzean, jaraunleek mailegua ezeztatu ahal izango dute ezarritako epean, eta hipoteka-hartzekodunari muga-eguneratutako kargu guztiak itzuliko dizkiote, interesak barnean hartuta, eta hartzekodunak ezin izango du ezeztatze horregatik inolako konpentsaziorik eskatu”.

Legean esanbidez esan ez arren, jaraunsleek zorra ordaintzeko praktikan duten epea urtebetekoa da, finantza- eta aseguru-entitateekin sinatutako kontratu gehienetan jasotzen den moduan.

Beraz, jaraunsleek zenbait aukera dituzte:

a) etxebizitzarekin geratzea eta bere funtsekin kausatzaileak kontsumitutako maileguaren edo kredituaren zatia ezeztatzea, zenbateko hori eta sortutako interesak itzuliz,

b) etxebizitza horren gainean ohiko hipoteka-mailegua lortzea, eta zenbateko hori egon dagoen zorra ezeztatzera bideratzea,

c) etxebizitza saltzea zorra ordaintzeko, eta normalean etxebizitzak balioa irabaziko zuenez, edo salmentako balioa kausatzaileak eskuratutako mailegua edo kreditua baino handiagoa izango denez, soberan dagoena jaraunsleentzat izango da,

d) erakunde hartzekodunak hipoteka gauzatzea itxarotzea zorra ordaintzeko, eta soberan dagoena, ziurrenik kopururen bat soberan egongo baita, jaraunsleentzat izango da,

Erakunde hartzekodunak mailegua edo kreditua berreskuratzeko duen berme bakarra higiezin eta kausatzaile zordunaren jaraunspeneko gainerako ondasunak dira; aipatutako lehenengo xedapen gehigarriaren 6. idatz-zatiarekin bat etorriz, ezin izango dira jaraunspen leen beste ondasun batzuk ukitu.

ALDERANTZIZKO HIPOTEKAREN TRATAMENDU ONURAGARRIA.

Alderantzizko hipoteketan kreditua aldi bakar batean eskuratzen denean edo denboran mugatuta (aldi baterakoak), jasotako kopuruak PFEZ ordaintzetik salbuesita daude, kreditu-kontu bati dagozkio-eta. Hori dela eta, ez dira ondare-handitzeak edo kapital-etekinak.

Jasoko den errenta bizi artekoa bada eta bizi-itxaropenaren adina gainditzen bada, ordutik aurrera jasoko den errenta aseguru-konpainia batetik dator, eta horregatik, une bakoitzean bizi arteko errentei ematen zaien tratamendua izango du.

Aipatutako Xedapen Gehigarrian alderantzizko hipotekaren aldeko beste neurri fiskal batzuk eta bestelakoak ezarri dira. Adibidez, Egintza Juridiko Dokumentatuen Zergatik salbuesita egotea eraketa, subrogazioa, berritze aldarazlea edo ezeztatzea dokumentatzen duten eskriturretan. Era berean, eskriturei lotutako notario-eta erregistro-ordainsarrietan tratu mesedegarria ezarri da, "zenbatekorik gabeko dokumentuen" eta amortizatze dagoen kapitalaren arantzelak aplikatuz, eta kasu bakoitzean ehuneko 90eko murrizketa eginez.

intereses, sin que el acreedor pueda exigir compensación alguna por la cancelación".

Aunque no lo dice expresamente la ley, el plazo con que en la práctica cuentan los herederos para hacer el pago de la deuda, es de un año, según se recoge en casi todos los contratos suscritos con las entidades financieras o aseguradoras.

Los herederos, por tanto, cuentan con varias opciones:

a) quedarse la vivienda y cancelar con sus propios fondos la parte del préstamo o crédito consumida por el causante, devolviendo su importe y los intereses generados,

b) obtener un préstamo hipotecario tradicional sobre esa vivienda, destinando su importe a la cancelación de la deuda existente,

c) vender la vivienda para pagar la deuda, y, como normalmente la vivienda se habrá revalorizado, o su valor de venta será superior al importe del préstamo o crédito dispuesto por el causante, el sobrante será para los herederos,

d) esperar a que la entidad acreedora ejecute la hipoteca para así saldar la deuda, y el sobrante, si como es de suponer lo hubiere, será igualmente de los herederos,

La única garantía de la que dispone la entidad acreedora para recuperar el préstamo o crédito es el inmueble y demás bienes de la herencia del causante deudor; de acuerdo con el apartado 6 de la D.A Primera citada no podrá dirigirse contra cualesquiera otros bienes de los herederos.

TRATAMIENTO FAVORABLE DE LA HIPOTECA INVERSA.

En el caso de las hipotecas inversas en las que la disposición del crédito haya sido de una sola vez o limitada en el tiempo (temporales) las cantidades percibidas están exentas de tributar en el IRPF, ya que se trata de disposiciones de una cuenta de crédito, sin que pueda conceptuarse de incrementos de patrimonio ni de rendimientos de capital.

Si la renta a percibir es vitalicia y se sobrepasa la edad de esperanza de vida, la renta que se perciba a partir de entonces proviene de una compañía de seguros y, como tal, tendrá el tratamiento que en cada momento se dé a las rentas vitalicias.

La Disposición Adicional citada establece además otra serie de medidas fiscales y de otro orden favorables a la hipoteca inversa. Así, la exención del Impuesto de Actos Jurídicos Documentados en las escrituras que documenten la constitución, subrogación, novación modificativa o cancelación. Se establece también un

